

GUREAN

EUSKARAREN EGUNA

Abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzen da. Aurten ere, hainbat ekitaldi antolatu ditugu ikastolan. Jokoez pisu handia izateaz gain, jarduera kulturek ere beraien txokoa izan dute. DBH, LH eta HH mailako ikasleek elkarrekin hartu dute parte ekintza ezberdinetan: soka saltoan, goman, tortoloseara jolasten... Ederki gozatu dute! Beste alde batetik, bertsozaleentzat plan ederra izan da. Aitor Mendiluze eta Markel Eizagirre bertsolariak, ikasleekin batera, bertsoak gelatik oholtzara pasatzeko aukera eskaini digute. Biba zuek eta biba euskara!

GURE INGURUAN



MARI DOMINGIREN ERREPUBLIKA MAGIKOA

NON: AÑABITARTE BASERRIA/ERRETERIA
NOIZ: ABENDUAK 6 - 8



Mari Domingiren Errepublika Magikoa Euskal Herriko betiko tradizioak eta egungo jendartearen izaera, desio nahiz erronkak uztartzen dituen esperientzia magikoa da. Añabitarre Baserrira Mari Domingiren etxe bihurtzen da eta haren inguruko zelaiguneak xarmaz, iratxoaz eta baratzezainez betetzen dira. 40-45 minutuko musika nota galduaren ibilbidea eginez, Mari Domingiren etxea bisitatzen dute Añabitartera etortzen direnek. Mari Domingirekin berriketan aritu, gutuna eman eta salda bero bat hartzeko aukera izango dute bisitariek.

59. DURANGOKO AZOKA

NON: DURANGO
NOIZ: ABENDUAK 5-8

933 nobedade eta 200 ekitaldi, Durangoko Azokaren 59. edizioan. Abenduaren 5etik 8ra, sortzailez, bitartekariz eta publikoz beteko dira Landako eta gainerako espazioak, kulturaren emalez eta hartzailez, "Hartzea ematea DA" lelopean.

Durangoko Azokako guneak 10:30etik 20:00etara egongo dira zabalik, eta azken egunean, igandean, 18:00etan itxiko dituzte ateak. Euskal kultururarekin topo egiteko aitzakia ederra izan daiteke guztiontzat. Anima zaitzete!

